Asisko gutuna

2026ko azaroa Azaroa. III. ale berezia San Frantziskoren heriotzaren mendeurrenean 217. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Frantziskoren heriotza gogoratzean, ez zuen galera gisa bizi izan heriotza, emate gisa baizik; ez zioten bizitza kendu, berak Jaunari itzuli baizik.

Gogoetarako gaia

Hiltzea bizitza itzultzea da

San Frantziskoren heriotzaren 800. urteurrenarekin jarraituz, eta hain heriotza berezia izanik, biografoek kontatzen duten xehetasun bakoitzak zeresan handia ematen du, pentsarazi egiten du.

Esaterako, Zelanok, bere biografoetako batek, honela dio: *«Bere oinaze guztien azkena eta gailurra izan zen gaixotasun guztiz larri hark jota zegoela, lur gorriaren gainean biluzik jar zezatela agindu zuen, prest azken ordu hartan ere… biluziarekin biluzik borrokatzeko.»* (2 Zel 214).

Zer ote dago Frantziskoren eskaera horren atzean, lur biluziaren gainean biluzik jartzeko gogo horretan? Zalantzarik gabe, bere heriotza ulertzeko modu bat da: berea ez den guztia itzultzea, alegia, nirea edo gurea ez den horretaz gabetzea. Itzultzea, berezkora bihurtzea, horixe da heriotza ulertzeko frantziskotar era. Horregatik, hiltzea bizitza itzultzea da.

Gure bizitza eman egin zaigu, oparitu egin zaigu. Bizitza Jainkoaren dohaina da; merezi gabe eta gure aldetik inolako kalkulurik gabe jaso dugun zerbait: gure gurasoak, gure herria, gure jaioteguna... Ez dugu guk programatu, ez dugu erabaki, ez dugu eskatu... Eman egin zaigu, debalde, eskatu gabe eta merezi gabe.

Eta opari hau egunero eman ahal izateko jaso dugu. Edith Steinek honela idatzi zuen bere oroitzapenetan: «Egunero hasten dut bizitza berri bat eta gau bakoitza nire bizitzaren amaiera bezalakoa da». Horregatik, bizitza, gure bizitza, ez da gurea den eta nahi duguna egin dezakegun zerbait; jaso dugun zerbait da, oparia... eta azkenean, eman zigunari itzultzen diogu: bizitzaren Jainkoari.

Horregatik, garrantzitsua da gauza bakoitza, harreman bakoitza, une bakoitza, egun bakoitza… jasotako opari gisa erabiltzen, eta kontu handiz tratatzen ikasteko ahalegina, ez baita gurea; eta, ondorioz, norberekoikeria alde batera uzten, geure buruaz gabetzen eta jasotakoa itzultzen ikastea. Kontua ez da geuretzat bizi izatea, besteentzat baizik, Jainkoarentzat. Gauza argia da: gure bizitza eta bertan dugun guztia egunero musu truk ematen dugu, ala gure borondatearen aurka kenduko digute.

Biblia pasartea: Erm 12.1–2

Senideok, Jainkoaren maitasunagatik eskatzen dizuet eskain ditzazuela zeuen buruak opari bizi, santu eta Jainkoarentzat atsegingarri. Hori da egiazko zuen kultua. Ez egokitu mundu honen iritzietara, eraberri zaitezte baizik, zeuen pentsaera aldatuz; horrela bereizi ahal izango duzue zer den Jainkoak nahi duena, zer den ona, atsegingarri zaiona eta bikaina.

Frantziskotar espiritualtasuna

Eta bihur diezazkiogun on guztiak Jainko Jaun goi-goiko eta gorenari, eta aitor dezagun on guztiak bereak dituela, eta eskerrak eman diezazkiogun guztiengatik, berarengandik baitator on oro. Eta berak, goi-goiko eta goren, egiazko Jainko bakarrak izan bitza, berari bihur bekizkio eta har bitza ohore eta agur guztiak gorespen eta bedeinkapen guztiak esker on eta ospe guztia; berarena baita on guztia, bera bakarrik ona. (1Er 17,17-18)

Otoitza

Aita, zure eskuetan jartzen naiz,
egin ezazu nitaz nahi duzuna,
dena dela ere, eskerrak ematen dizkizut.

Denerako prest nago,
dena onartzen dut,
zure nahia nigan bete bitartean,
baita zure izaki guztiengan ere.

Ez dut besterik nahi, Aita.

Zure esku uzten dut nire anima,
ahal dudan maitasun osoz
ematen dizut,
maite zaitudalako.

Eta neure burua eman beharra daukat,
neurririk gabe zure eskuetan jarri,
konfiantza mugaezinez,
Zu nire Aita zarelako.

Charles de Foucauld

2026ko azaroan eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1. Mt 5, 1-12	7. Lk 16,9-15	13. Lk 17,26-37	19. Lk 19, 41-44	25. Lk 21, 12-19
2. Jn 14,1-6	8. Mt 25, 1-13	14. Lk 18, 1-8	20. Lk 19, 45-48	26. Lk 21, 20-28
3. Lk 14, 15-24	9. Jn 2, 13-22	15. Mt 25, 14-30	21. Lk 20, 27-40	27. Lk 21, 29-33
4. Lk 14, 23-33	10. Lk 17, 7-10	16. Lk 18, 35-43	22. Mt 25, 31-46	28. Lk 21, 34-36
5. Lk 15,1-10	11. Lk 17, 11-19	17. Lk 19, 1-10	23. Lk 21, 1-4	29. Mk 13, 33-37
6. Lk 16, 1-8	12. Lk 17, 20-25	18. Lk 19, 11-28	24. Lk 21, 5-11	30. Mt 4, 18-22



Asis Sarea
646 21 48 96

Azaroan elkarrekin ospatuko dugun otoitza 26an izango da.